



Arartekoaren 2017R-1615-16 Ebazpena, 2017ko apirilaren 25ekoa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berrazter dezala, alde batetik, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren etetea eta, bestetik, prestazio gisa bidegabe jasotako zenbatekoek sortutako zorra, horretarako arrazoirik ez baitago.

Aurrekariak

2016ko abuztuaren 2an, pertsona batek kexa bat aurkeztu zuen; haren helburua diru-sarrerak bermatzeko errenta (etxebizitzarako prestazio osagarriarekin batera) etetea zen, eta aurreko prestazio gisa bidegabe jasotako zenbatekoengatik 1.087,83 € itzultzeko betebeharra izatea. Horretarako arrazoaia, Lanbidek xede horrekin otsailaren 20an emandako eteteko ebazpenean jasotzen denez, honako hau zen: berrogeita lau egunez Euskaditik kanpo egon dela jakinarazi ez izana. Eteteko ebazpenarekin batera, zenbatekoak itzultzeko prozedura hasteko jakinarazpen bat igorri zen arrazoi beragatik. Ondoren, uztailaren 1ean, aipatutako zenbatekoa itzultzeko betebeharra adieraztea ebatzi zen.

Kexagileak erakunde honi jakinarazi zion irteera hori kexagilearen ahizpak (Malagan bizi da) osasun arazo larriak zituelako egin zuela. Arazo horiengatik 2015eko abuztuaren 8an ospitalean sartu zuten irailaren 16ra arte gutxienez; data horretan, kexagileari mediku ziurtagiri bat eman zitzaion, eta ahizpa ospitaleratua izateko arrazoiak zehazten ziren bertan.

Irteera ez zen jakinarazi, eta egoera horrek prestazioa etetea eragin zuen eta itzultzeko prozedura hastea. Erakunde honek uste du ez dagoela Euskaditik kanpoko irteerak jakinarazteko betebeharririk; hori dela-eta, abuztuaren 18an, Arartekoak idazki bat bidali zion Lanbideri iritzi hori helaraziz. Era berean, kexagilearen irteeraren xehetasunen gaineko informazioa eskatu zen.

Erantzunik jaso ez genuenez, urriaren 11n errekerimendu bat bidali genion Lanbideri, euskal administrazio publikoek Arartekoaren informazio eskaerak epe barruan erantzun behar dituztela gogorarazteko.

Urriaren 13an, Arartekoaren erregistroan Lanbideren idazki bat sartu zen; horren bidez, erakunde honek aurretik helarazitako gogoetei erantzuten zaie. Halaber, idazki hori gomendio honen oinarria da.

Lanbidek, emandako erantzunaren bidez, adierazi du Euskaditik kanpoko irteerak jakinaraztea diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen





betebeharretako bat dela; izan ere, betebehar hori ez betetzeak eragin zuen prestazioaren bigarren etetea eta zorra sortzea.

Zehazki, Lanbidek honako hau jakinarazi du: *“Interesdunaren espedienteak ikusita, interesduna Euskal Autonomia Erkidegotik 44 egunez atera zela jakin da, eta ordaindutako 15 eguneko irteera egiteko eskubidea zuela (diru-sarrerak bermatzeko errentaren irizpideen arabera). Prestazioa eten zioten, ez zuelako jakinarazi 2016ko otsailean egindako irteera. 2016ko apirilaren 14an, itzulketa-prozesuaren hasieraren berri eman zioten (Lanbideren instrukzioaren arabera, ordaindutako 15 eguneko irteera egiteko baimena zuen eta 44 egunez egon zen kanpoan, beraz, ordainsaririk jasotzea ez zegoen 29 egun horiena da itzulketa), eta interesdunak ez zuen arrazoibiderik aurkeztu. Uztailearen 13an, itzulketa-ebazpena jakinarazi zioten, eta 266,58 euro deskontatzen hasi zen 2016ko uztailean”.*

Gogoetak

Aurrekarietan adierazi den moduan, eteteko ebazpenak aipatutako irteera Malagara egindako bidaia bat izan zen, kexagileak egindako bidaia, ahizpa ospitaleratu zutela-eta. Lanbideri ez zitzaion egitate hori jakinarazi.

Hala ere, adierazi beharra dago, Arartekoak dagoeneko hainbat aldiz egin izan duen bezala, 18/2008 Legearen 19. artikulua eta 147/2010 Dekretuko 12. artikulua arabera, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonak ez dutela EAetik kanpora egindako irteerak jakinarazteko betebeharra.

1. Jakina denez, Arartekoak uste du lekualdatze batek ekar dezakeela, bere ezaugarrien arabera, DSBE bati eragiten dion ebazpena.

Hala, irteera horrek gastu handia ekartzen badu, egoera ekonomikoa ez larriagotzeko edo diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortu zen xedeetara bideratzeko betebeharra ez betetzea ekar lezake (18/2008 Legearen 19.1. artikulua), edo, are, egoera luzatuz gero, bizileku eraginkorra EAEn edukitzeko betekizuna galtzea ekar lezake (18/2008 Legearen 16.b] artikulua). Baina irteera batek, berez, ez luke eraginik izan beharko prestazioan.

Organismo autonomoari beste gomendio batzuen harira esan izan zaionez, arrazoi berbera aintzat hartzen duen jurisprudentzia dago (1330/2015/QC, 686/2015/QC edo 1312/2016/QC espedienteak adibidez) eta horren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzen duen araubidearen arabera ez dago Euskaditik kanpo egindako irteerak jakinarazteko betebeharririk, estatutik kanporako irteerak izanik ere.

Irteera horiek jakinarazteko betebeharririk ez egotearen inguruan Arartekoak duen ikuspegia bat dator Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. zenbakiko





Epaitegiaren 44/2015 Epaiaren bigarren oinarri juridikoarekin. Horren bidez, EAEtik kanpora egindako irteerak ez jakinarazteagatik diru-sarrerak bermatzeko errenta eteten duen ebazpen baten aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa balioetsi da, irteera horiek Lanbideren aurrean jakinarazi ez izanari dagokionez honako hau aipatuz amaitzen dena: "... 12. artikulua arabera, ez gaude ez-betetze baten aurrean, administrazioak aurkaratutako jardueran aipatu duen bezala. Gainera, administrazioak ez du zehaztu zein den bete ez den betebeharra, eta aipatu egitatea ezin daiteke sartu xedapen horretan jasotako betebeharraren barruan, zeinaren arabera, titularren ohiko bizilekuan jazotako edozein aldaketa jakinarazi behar den. Esku artean dugun kasuan, argi dago ez dela horrelako aldaketarik egon".

2. Aipatu den bezala, jokatu den moduan jokatzeko agian lege oinarririk ez izateari lotuta Arartekoak egindako gogoetei erantzunez, Lanbidek barne irizpide batzuen erabilera aipatu du, gai horri buruzko jarraibidearen kopia bat aurkeztuz.

Arartekoaren aburuz, Lanbidek ezin ditu aplikatu betebeharrak berriak sortzen dituzten barneko irizpide batzuk prestazioa arautzen duen araudiak betebeharrak ezartzen ez duenean.

Ikuspuntu horrekin bat egin du orain gutxi emandako jurisprudentziak ere.

Hala, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiaren 2016ko uztailaren 11ko 156/2016 Epaiak ondorengoa adierazi zuen Laugarren Oinarri Juridikoan:

"Tal y como se desprende del expediente administrativo, con fecha 22/09/2015, XXX formula solicitud de renovación de RGI, aduciendo la administración demandada que no comunicó la salida efectuada entre 01/06/2015 y 02/07/2015 fuera de la CAPV. La parte recurrente no contraviene el expresado fundamento fáctico, y así se corrobora en el folio 8 del e.a. del examen de su pasaporte.

Siendo éste el motivo sobre el que la administración demandada sustenta su resolución de no renovación hemos de concluir que no se comparte el juicio alcanzado por la misma, no sin antes expresar la insuficiente motivación de la resolución impugnada, en la que no se conecta normativamente el incumplimiento al parecer detectado con la concreta prescripción que habría sido inobservada por la actora, siendo el acto del juicio, el primer momento en el que la asistencia letrada de la administración demandada permite una concreta identificación de la normativa que a juicio



de Lanbide ha sido vulnerada. Resultando incontrovertido que la parte actora ha efectuado la salida fuera de la CAPV a la que se hace referencia, hemos de concluir que nada más que una salida puntual constituye el hecho acreditado, sin que del mismo quepa inferir una modificación sobrevenida de las circunstancias sobre las que se sustenta la concesión de la prestación, ni en modo alguno, que la actora haya cambiado su lugar de residencia efectiva, ni que ésta no se hubiera encontrado disponible para el empleo . Del examen de las cuentas presentadas no se deduce con la exigible claridad a efectos de sustentar la decisión hoy combatida que la actora hubiera destinado el importe de la RGI a finalidad distinta que la de satisfacer sus necesidades básicas. No habiendo sido por tanto acreditado el incumplimiento de las obligaciones sobre la que se residencia la decisión administrativa, procede la íntegra estimación del recurso contencioso administrativo”.

Epai horrek beste epai bat aipatu du, epaitegi berberak emandakoa, argudiatze juridikoaren oinarri gisa 201/2015 duena, 2015eko irailaren 30ekoa:

“No encontramos en la legislación autonómica citada motivos o justificación para la retirada de la prestación subvencional por la ausencia de la CAPV de cinco días, pues no contempla la legislación estatal ni autonómica que ante tal ausencia se le deba retirar la prestación.

Por lo que respecta a la concreta obligación del perceptor de comunicar los cambios sobrevenidos y de residencia (artículo 19, letras f) y g) de la ley 18/2008, de 23 de diciembre), se trata de cambios que se refieran a las condiciones para ser perceptor de las ayudas del art. 16 referidos a estar empadronado, tener residencia efectiva, tener necesidades sociales o ingresos, todas las cuales se cumplen y se siguen cumpliendo con independencia de la ausencia de cinco días. En este sentido la administración está vinculada por el principio de legalidad, de tal manera que si una norma le habilita y le faculta para retirar la ayuda esta podrá y deberá hacerse efectiva, pero, si por el contrario no existe una norma que directa y claramente determine el cese de la asistencia, esta no podrá realizarse.

Es la concreta regulación de las ayudas la que nos impide negar o retirar a quien se haya ausentado de la CAPV cinco días, por mucho que tenga que estar a disposición de Lanbide por posibles ofertas de empleo, manteniendo el empadronamiento y la residencia habitual, razón por la que, no podemos aceptar la retirada de la ayuda social, y debemos estimar el recurso”.



3. Aipatu den moduan, Lanbidek 2016ko uztailaren 1eko ebazpen baten bidez adierazi du, 1.097,83 € itzultzeko betebeharra duela kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe jasotako zenbatekoengatik. Ebazpen horrek bidegabe jasotako epea 2015eko abuztuaren 1etik 2016ko urtarrilaren 31 arte dela adierazi du.

Arartekoaren informazio eskaerari erantzuteko idazkian, Lanbidek honako honen baliokidea den zenbatekoa itzultzeko beharra aipatzen du: *Lanbideren instrukzioaren arabera, ordaindutako 15 eguneko irteera egiteko baimena zuen eta 44 egunez egon zen kanpoan, beraz, ordainsaririk jasotzea ez zegokion 29 egun horiena da itzulketa.*

Nolanahi ere, zehazki 1.087,83 € erreklamatzeko diren arrazoiak erabakitzeke zailtasunak alde batera utzita, garrantzitsua da honako hau gogoraraztea: Euskaditik kanpora egindako irteera Lanbideri horren berri eman gabe, dagoeneko lehendik gaitzetsi zela, haren prestazioak hilabetez eten baitziren (2016ko otsaila) Euskaditik kanpo egindako irteerak jakinarazteko betebeharra bete ez izanagatik.

Horrenbestez, kexagileak kanpoan egon zen denboraldiaren zati batean jasotako dirua itzuli behar izatea gehiegi eskatzea litzateke, hipotesi modura betebeharraren bat bete ez duela onartuko balitz ere, nahiz eta, arestian aipatu den moduan, erakunde hau ideia horrekin bat ez etorri.

Lanbidek kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta eten egin du eta jasotakoaren zati bat itzultzeko eskatu araudian jaso gabe dagoen arrazoi batengatik; izan ere, hark ez du ezartzen Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora egindako irteerak jakinarazteko betebeharririk eta, beraz, kexagilearen irteera ez jakinarazteak ez du esan nahi diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzen duen araudiak aipatutako betebeharren bat bete ez duenik, horretarako 147/2010 Dekretuaren 43. artikuluan ezarritako justifikazio bat egonda ere.

Desproporzionatua da 1.087,83 € erreklamatzeko eta hilabetez prestazioa jasotzeko eskubidea etetea.

Arartekoak zehaztasunez aztertu zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarri gisa bidegabe jasotako prestazioen erreklamazioan Lanbide jarraitzen ari zen prozedura, Arartekoaren 2015eko abenduaren 22ko 2015R-835-15 Ebazpenean.





Arartekoaren iritziz, prestazioa jasotzeko eskubidearen titularra izateko baldintzak betetzen dituen bizikidetzaren unitateak betebeharrak betetzen ez dituzenean, prestazioak erreklamatzeko ondorio garestiegia da (ez betetzetik sortutako beste ondorio batzuek gain).

Alde horretatik, Arartekoaren aburuz, Lanbideren berrikusteko eskumenak ezin du prestazioak itzultzeko betebeharrak ekarriko duen bide hedagarrikeria eduki, prestazioaren titularra izateko betekizunei edo esleipena eragin zuten arrazoiei eragiten ez dieten betebeharrak bete ez izanean oinarrituta. Espainiako konstituzioko 9.3. artikulua segurtasun juridikorako eskubidea bermatzen du. Horrekin, egoera juridiko bat, esaterako, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzarako prestazio osagarrikerako eskubidearen aitortza, mantenduko delako ziurtasuna bermatzen da, onuradunak berarekin jasotzeko betekizunak betetzen dituelako, eta Lanbidek ezin du, legezko euskarri argirik izan gabe, berarekin itzultzeko eskatu.

Horren ondorioz, Lanbideri honako hau helarazi zaio: prestazioen erreklamazioa soilik egin daiteke betekizunak betetzen ez direnean edo aitortutako zenbatekoan izandako aldaketa hura kalkulatzeko kontuan hartutako egoera-aldaketa batekin bat datorrenean.

Gainera, denboraldi batez prestazioa jasotzeko eskubidea eten denez, araudiak dagoeneko gaitzespen bat aurreikusi du araudia ez betetzeagatik jokabideagatik.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendioa luzatzen zaio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailari:

GOMENDIOA

Berriz azter ditzala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteteko erabakia eta bidegabe jasotako zenbatekoengatik zorraren adierazpena.

